

2020KO AZAROAREN 24AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1. AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO IRAILAREN 15EKO ETA URRIAREN 19KO BILKUREN AKTAK).

2.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

3.- EUSKARALDIA EKIMENAREN BARNEAN UDALETXEKO BALKOIAN KARTELA JARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEKO LAGUNTZAK BANATZEKO DEIALDIA.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak, gai zerrendan agertzen ez den honako gai hauek eztabaidatzea proposatzen du:

- AZAROAREN 25ERAKO EREDUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA.

Proposamenaren izaerak ikusi eta hau eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez erabakitzen du gaia bilkura honetan eztabaidatzea.

1. AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO IRAILAREN 15EKO ETA URRIAREN 19KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2020ko irailaren 15eko eta urriaren 19ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), adierazten du, urriaren 19eko bilkuren aktan, galde-erantzunen atalean Covid-19ari buruzko aipamenetan, honako adierazpena jasotzea falta dela: "...herritarrak lasaitzeko, eta informazio falta hori kalean somatu dutela azaltzen du. **Zentzu horretan adierazten du, bere taldearen iritziz, udala herritarritarren gertuen dagoen erakundea izanda, nahiz eta eskumenik ez eduki, pedagogia lana egitea dagokiola.** "

Era berean, Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), urriaren 19eko bilkuren aktan, galde-erantzunen atalean egindako adierazpenean "**Txanberonetik-Arantzelaira doan bidea ez dela garbitu...**" jasotzea eskatzen du.

Ez da bestelako oharpenik adierazten, eta beraz, adierazitako zuzenketekin, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko martxoaren 8an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko lanen lizitazioa arautuko duen baldintzen plegu ekonomiko-administratiboa eta teknikoa onartu zuen.

Kontratazio prozedura bideratu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 17an Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierrri Kirol Teknikoak enpresari (55.556,00 euro gehi 11.666,76 eurotan (BEZ %21) (guztira 67.222,76 euro) esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguan adierazitakoaren arabera, zerbitzua emateko epea denboraldi batekoa da, nolana ere, bi aldeen arteko akordioa egonez gero, hau urtero luzatu ahal izango da, gehienez lau denboraldi egin arte.

Alkateak azaltzen du, adierazitako epea formalki bete dela, nolana ere, Covid-19ak

aurtengo zerbitzuan eragindako egoera eta murrizketak kontuan izanik, hau beste beste denboraldi batean luzatzea iritzi dela adierazten du, eta zentzu honetan hau onartzeko proposamena egiten da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea, sinatutako kontratuaren arabera baldintza eta zenbateko berdinekin.

Zentzu horretan, eta adierazitakoaren arabera, 2021ean zerbitzuaren kontratazioa forman bideratzeko izapideak gauzatuko dira.

Bigarrena.- Goierri Kirol Teknikoak enpresak, kontratazioa arautzen duten administrazio-baldintza zehatzak eta teknikoak bete beharko ditu. Zentzu honetan ere, Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz indarrean dauden segurtasun eta osasun neurriak bideratu beharko ditu.

Hirugarrena.- Igerilekuak martxan jartzeko izapideak bete beharko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eskatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Dagozkion ondorioetarako erabaki hau Juan Ignacio Moyua Ayala jaunari jakinaraztea, Goierri Kirol Teknikoak enpresaren ordezkari eta izenean.

3.- EUSKARALDIA EKIMENAREN BARNEAN UDALETXEKO BALKOIAN KARTELA JARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak, azaroaren 20tik abenduaren 4a bitartean burutuko den Euskaraldia ekimenaren barnean, udaletxeko balkoian ekimena bultzatzeko kartela jartzea iritzi dela adierazten du. Zentzu horretan, kartela jartzeko proposamena egiten da.

Kartelaren ezaugarriak ikusirik, eta honen xedea eta helburuak kontuan izanik, bideragarria irizten da adierazitakoa.

Horrenbestez, proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Euskaraldia ekimenaren barnean udaletxeko balkoian ekimena bultzatzeko kartela jartzea.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

4.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEKO LAGUNTZAK BANATZEKO DEIALDIA.

Zegamako Udaleko Udalbatzarrak, 1999ko abenduaren 13an, "Herrialde behartsuenekiko lankidetzaren programa eta dirulaguntzak banatzeko Araudia" onartu zuen eta 2001eko

azaroaren 5ean, honen aldaketa.

Araudi horretan ezarritako erizpideak eta baldintzak jarraituz (5 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren alean, 2000ko urtarrilaren 10ean eta 235 zenbakia duen alean 2001eko abenduaren 10ean argitaratuak), Udalbatzarrari 2019ko urteari dagokionez 4.750,00 euroko dirulaguntza banatzea proposatzen zaio,

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitako Araudia jarraituz, 2020ko ekitaldiari dagokionez, 4,750,00 euroko dirulaguntza banatzea, honen gastua, 2021. urteko aurrekontuaren 1.0000.481.02.334.30.2021. aurrekontu sailaren kargu egingo delarik.

Bigarrena.- Dirulaguntza eskaerak, Udaletxean aurkeztu ahal izango dira erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hilabete bateko epearen barnean.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkutatik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 012/01020 erabakia, urriaren 22koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrenda onartuz.
- 013/01020 erabakia, urriaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 01/01120 erabakia, azaroaren 6koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 02/01120 erabakia, azaroaren 6koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 03/01120 erabakia, azaroaren 6koa, lursailak bereizteko baimena emanez.
- 04/01120 erabakia, azaroaren 9koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 05/01120 erabakia, azaroaren 12koa, ezkontza baimentzeko ahalmena eskuordetuz.
- 06/01120 erabakia, azaroaren 17koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 07/01120 erabakia, azaroaren 17koa, Zegama tokiko osasun zentroa mantentzeko gastuak konpentsatze aldera, 2020ko ekitaldirako hitzartutako zenbatekoa (9.243,49 euro) Osakidetza bidaliz.
- 08/01120 erabakia, azaroaren 19koa, 31 zenbakidun fakturen erlazioa (azaroa), guztira 86.037,65 euro, onartuz.
- 09/01120 erabakia, azaroaren 19koa, eguneko zentroa egokitzeko B kartazalen irekiera finkatuz.
- 010/01120 erabakia, azaroaren 23koa, Zegamarekin senidetutako Sant Sadurn d'Anoiako zinegotzia zen Rafa Berlanga Rojas jaunaren heriotza ezagutu ondoren, nire izenean eta

Zegamako udaltaldean izenean, doluminak helaraztea, bihotzez, haren senide, lagun eta udalbatzar-kideei.

AZAROAREN 25ERAKO EREDUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA.

Alkateak, EUDEL elkartetik, “nazioarteko emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeeko eguna” dela eta helarazitako ereduazko erakunde adierazpena azaltzen du, bere testua honako hau delarik:

“ COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarritz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendurrikizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasan osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskeengan. Gizartearen aitorpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabatasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurtan Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeak eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihur dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeak beren askapen-, berreskuratzeko-, ahaldundutze- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeak duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarritzko eskubidea berreskuratu dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzara seguru, solidario eta berdinzalerako gune gisa indartu daitezten.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzara eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, ZEGAMAKO Udalak konpromiso hau hartzen du:

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzea.

- Behaketa **hobetzea**, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta- eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta **egokitzea**, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduntzeari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak **bultzatzea**, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.
- Tokiko bizitzan berdintasun-programak **zaintzea eta egonkortzea**, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- **COVID19ren krisiak** emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen **eragina aztertzea**, laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko.
- **Genero-ikuspegia txertatzea** enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk **arintzeko neurrietan**, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren **indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko**.
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **lankidetzak eta koordinazioak** eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzekeo eguna dela-eta deitutako mobilizazioei atxikitzeko.”

Adierazpena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Azaldutakoaren arabera, azaroaren 25eko nazioarteko emakumeen aurkako indarkeria ezabatzekeo eguna” dela eta ereduazko erakunde adierazpena onartzea.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

6.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Aurreko puntuaren ildotik, Alkatea azaltzen du emakumeen aurkako indarkeria-biktimen aldeko ekimenak aurrean Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz ez direla egingo, eta datorren urtean bideratuko direla posible bada. Nolanahi ere, Murgiberen eskutik, ostegunean tailer bat egingo da “Egungo indarkeria berriak” izenpean. Otsaila eta martxoa bitartean beste hiru tailer egingo dira ere.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), adierazten du, Covid-19ak eragindako kalteen ondorioz, autonomoentzat laguntza linea bat atera zenez, gogorarazpen bezala hau kontuan izatea adierazten du, eta horrez gain itxita dauden negozioei kobratzen zaizkien tasatan onurak bideratzea eskatzen du. Alkateak adierazten du, hori horrela bideratzen ari dela, bigarren hiruhilekoan itxita zaborren kobrantzan %50eko hobaria ezarri zaiela eta egoera honetan laugarrenean ere bideratuko litzatekeela. Laguntza programari dagokionez, deialdi berri bat bideratu beharko litzatekeela adierazten da. Zegaman, bereziki taberna eta nekazal-turismoen eragin diela adierazten da.

- Imanol Garmendia Iurretagoiena zinegotziak (EH Bildu), adierazten du, txakurren araudia bideratzear badago ere, zakur-mokordoak edonon daudela ikusirik arazoa konpontzeko neurriak hartzea proposatzen du. Alkateak adierazten du lorategi eta beste eremu batzuetan kartelak jarri zirela duela urte batzuk baina desagertu zirela adierazten da. Bilkurakideak gaiaz hitz egiten dute eta Alkateak ados dagoela adierazten du, arazoaz konziente direla adieraziz. Zakur-zaleekin bilera bat egiteko komenigarritasuna adierazten da, egoerak uzten duenean. Era berean, idazkariari isunak bideratzeko aukerari buruz galdeten zaio, eta prozedura-administratiboaren azalpena egiten da, arazoa isunak jartzeko salaketa nola bideratzean ikusten delarik. Txakurrak aske eramaten direla ere aipatzen da, Jose Luis Azurmendi Larrea zinegotziak (EH Bildu), puntu honetan dio ere, aske ikusita, geroz eta gehiago lotuta ikusten direla.
- Alkateak, zakarrekin arazoa dagoela azaltzen du, asko kanpoan uzten direla, traste zaharren kokapena eta abarren ondorioz gaia aztertu behar dela.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu) adierazten, Euskaraldiaren barnean ekintza gutxi egiteko aukera dagoenez, “egunean behin” aplikazioaren barnean Zegamar onenari aste-batean saski bat oparitzea pentsatu dela. Zentzu horretan saskia erosi dela adierazten da eta bilkurakideak adostasuna adierazten dute. Alkateak adierazten du, hau aurrez nonbaiten jasotzea komeni dela adierazten du, etxeetara bidalitako ofizioetan ez delako jaso (Aritz Agirre Garikano zinegotziak azken momentuko ideia izan dela azaltzen du).

Aztartzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztatutako eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO